

**IURRETA  
ELEIZATEKO  
UDALA**



**HERRI  
BIBLIOTEKA**



## **ORRI MARKAGAILUAREN LEHIAKETA**

### **1- Helburuak:**

Lehiaketa hau, Juan Orobiogoitia Institutuak eta Iurretako Herri Bibliotekak, gazteen artean irakurketa eta euskararen erabilera bultzatzeko helburuarekin antolatzen dugu.

### **2. Parte hartzea:**

Lehiaketa honetan Iurretan erroldatuta dauden edo Iurretan ikasten duten gazteek parte hartu ahal izango dute, DBHko 1. mailatik-2. Batxillergorarte.

### **3. Irudia, gaia eta lema:**

Orrri markagailuak, irudi originala eta lema bat izan beharko ditu.

Gaia: irakurzaletasuna.

Lema: euskararen erabilera bultzatzeko esaldi bat.

### **4. Neurriak:**

Orrri markagailuak 210 milimetroko luzera eta 40 milimetroko zabalera izan beharko ditu.


### **5. Euskarria:**

Irudia, paperean edo pdf formatuan entregatuko da.

### **6. Non eta nola entregatu.**

Lanak, Iurretako Herri Bibliotekan, Bidebarrieta kalea 4. zenbakia (1. solairuan) 48215 IURRETA (Bizkaia) edo [biblioteka@iurreta.net](mailto:biblioteka@iurreta.net) helbidean entregatuko dira.

**IURRETA  
ELEIZATEKO  
UDALA**



**HERRI  
BIBLIOTEKA**



Paperean: Ezizena eta izenburua baino eramango ez duen kartazal handi baten barruan aurkeztuko dira lanak. Kartazal horren barruan beste txikiago bat sartuko da eta bertan honako datuak jarriko dira: izen- abizenak, ikastetxearen izena, adina, helbidea, telefonoa eta e-posta. (Sartuari lana pdf formatuan entregatzeko eskatuko zaio).

Digitalean (e-mailez): mezuan goian aipatutako datu pertsonalak adierazi eta lanak pdf formatuan bidali beharko dira.

## **7. Epea:**

Lanak 2013ko azaroaren 15erarte aurkeztu ahal izango dira.

## **8. Erreprodukzio baimena:**

Lehiaketa honetan parte hartzen duenak Iurretako Udaleri orri markagailuaren irudiaren erreprodukzio eskubidea ematen dio. Adin txikikoen kasuan gurasoen edo tutoreen baimena beharko da.

## **9. Epaimahaia:**

Epaimahaia Juan Orobiogoitia Institutuko eta Iurretako Udaleko ordezkariak osatuko dute.

## **10. Saria:**

Sarituak 150€tan baloratutako saria jasoko du.

## **11. Ebatzia :**

Lan saritua Iurretako Herri Bibliotekak 2014rako argitaratzen duen orri markagailuan agertuko da. Sari banaketa 2013ko abenduaren 3an izango da.

**Lehiaketa honetan parte hartzeak oinarri-arau hauek eta epamahaikoen erabakia onartzea dakar.**